



## BEZEROAK:

Gure proiektua gazteengana iritsi dadin iragarkiak jarriko ditugu gazteek askotan kontsultatzen dituzten web-orrialdeetan (unibertsitateen web-orrialdeak, sare-sozialak, ikasle pisua alokatzeko web-guneetan...), baita fisikoki joaten diren tokietan ere.

Pertsona helduagoetara, hau da, lan munduan sartuta daudenetara hurbiltzeko ere iragarkiaz baliatuko gara, egunkarietan, irratian eta eskualdeko telebista kateetan.

Iragarkietan, beti ere, gure telefono zenbakia, helbidea eta e-maila agertuko direlarik, bezeroek gehiago jakin nahi izanez gero, harreman zuzena izan dezagun, haien kezkak argitzeko.

Bezeroei beharpenak eskainiko zaizkie lehenengo erosketa egin ondoren, eta sozio egiteko aukera ere izango dute, aurrerantzean abantaila gehiago lortu ahal izateko.

